

3.FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure produktua aurrera eramateko, hainbat hornitzaile beharko genituzke eta hornitzaile horiengatik ondorengo ondasunak eskuratuko genituzke: altaboz txikiak, karkasak, plastikozko piezak, metalak, txipak eta bateriak. Enpresa multinazionalekin lan egitea gustatuko litzaiguke, baina posible ez bada, enpresa txikiagoekin kolaboratuko genuke, pixkanaka gure enpresa hazteko helburuarekin. Hornitzaile hauek kalitate handiko produktuak bermatu beharko dituzte, gure aurikularrek ur azpian ere errendimendu egokia izan dezaten. Banaketa arloan, bazkide fidagarriak beharko ditugu, hala nola Correos edo antzeko enpresak, produktua bezeroengana azkar eta segurtasunez iristeko.

Hornitzaile egokiak izanik, arriskuak murriztu, kostuak optimizatu eta gure produktua merkatuan sendoago kokatzeko aukera izango dugu.